



BARREN

TOKIKOM

# Mokadu txikiak zapore handia



# Belaustegi Baserria

JATETXEA

Aiastia auzoa z/g

Tel.: 943 743 102

*19. urteurrena*

**Eskerrik asko elgoibartarroi!**

Portxe-jardineko haiman bazkaldu edo afaltzeko aukera.



[www.belaustegi.com](http://www.belaustegi.com)



Barren 25 urte

# Herriko elkarten barrenera buelta

**A**lbeste ez ezik berriemaile ere izan dira elkarteak herrian urte hauetan guztietan, eta agerkari honen hasierako urteetan izan zuten beren txoko berezia ere: *Elkarteetatik bueltan.*

**G**astronomia elkarteetako sukaldeetan sartu zen BARREN atal honetako lehen platerak betetzera. Bazkideei eta haien ingurukoei jan eta edanean oinarritutako toki bat eskaintzea izan da beti gastronomia elkarten ezaugarri nagusia, baina denek izan dute horrez gain aisialdiko beste ekintza batekiko lotura, kirolarekikoa batik bat. Pilotazalea izan da beti Baltasar; Juan Mugertza krosaz arduratu izan da urtetan EgoToki; txirindularitzako Etxaniz Memorialaz arduratu izan da Gure Bide; herri kirolez Kalamua; Nahaste Borraste probaz Kimetz... Baina bestelako ekintzez arduratu den gastronomia elkarerik ere bada Elgoibarren. Musika izan da, esaterako, Biar Danaren lagun eta Herri Gain Urazandiko jaiak antolatzeaz arduratu izan da. Pe-

retxiko gairik ez da falta izan, bestalde, Karakaten, eta Goiko Errotak elkarten ez ezik kanpora ere zabaldu du gastronomia, gazta lehiaketa antolatuz eta bertako kideek sukaldaritza lehiaketetan parte hartuz.

*Elkarteetatik bueltan* atalean, elkarten historiaren eta bazkideek bizitako istorio bitxi berri ematen zuten BARRENek, eta elkarte bakoitzak errezeta bat ere eman ohi zuen. Horrez gain, elkarten sorrera-data, presidentearen izen-abizenak, bazkide-kopurua, kuota, helbidea eta beste berezitasunen bat ere jaso ohi zituen, fitxa batean. Zenbateko kuotak zituzten erreparatzen jarrita, alde handikoak zirela ikusi dugu: hasi 2.000 pezetako kuotetatik eta 24.000 artekoa ere bai bakarren batek. 10.000 eta 15.000 pezetaren artean zegoen gehienetan urteko kuota. Elkarte batzuk beste batzuk baino txikiagoak izanik, bazkide kopurua ere askotarikoa zen. 40-50 ingurukoa batzuen, 70en bueltakoa besteak, eta 100 bazkidetik gora zuten elkarerik ere bazegoen.

Elkarte batzuetan bazkideek beraiek ere justu-justuan jakindako konturen bat edo beste jaso zen atal honi esker. Elgoibarko elkarte gastronomiko gehienek hartu zuten tokia BARRENen, baina badira atal hau desagertu ondoren agertutako edo sortutako elkarteak ere.

Gastronomia da askoren aisialdia betetzen duen zaletasuna, baina bestelakorik ere bada. Hori dela-eta *Elkarteetatik bueltan* beste elkarte eta talde batzuetara ere jo zuen. Kulturaren bueltakoetara, esaterako, musika, antzerkia, eskulanak, dantza, zinema... beren erdigune zituztenengana.

Elkarteak elkarte, makina bat kontu jakiteko aukera izan zen, ustez zegoen izan arren hauen baitako beste zenbait gauza kontatu zituzten kideen hitzetan.

Atal hari iritsi zitzaion bere azkena, baina gaur egun ere ematen dugu herriko elkarten berri BARRENen, hauek eta bertako kideak direlako herrian berri askoren sortzaile, eta hortaz, Elgoibarko historia jasotzeko bitarteko ezinbesteko.

**Baltasar: Betidanik pilotazale**

Orduko delia, 34 urteko lehenbiziko pilotazalea. Baltasar, 1948an, 1949an, 1950an, 1951an, 1952an, 1953an, 1954an, 1955an, 1956an, 1957an, 1958an, 1959an, 1960an, 1961an, 1962an, 1963an, 1964an, 1965an, 1966an, 1967an, 1968an, 1969an, 1970an, 1971an, 1972an, 1973an, 1974an, 1975an, 1976an, 1977an, 1978an, 1979an, 1980an, 1981an, 1982an, 1983an, 1984an, 1985an, 1986an, 1987an, 1988an, 1989an, 1990an, 1991an, 1992an, 1993an, 1994an, 1995an, 1996an, 1997an, 1998an, 1999an, 2000an, 2001an, 2002an, 2003an, 2004an, 2005an, 2006an, 2007an, 2008an, 2009an, 2010an, 2011an, 2012an, 2013an, 2014an, 2015an, 2016an, 2017an, 2018an, 2019an, 2020an, 2021an, 2022an, 2023an, 2024an, 2025an.

**EMERZUNT: Mahaitza**

Harpidetzak: 74 16 26

**ANCHUSTEGUI**

**Caritas: herritarren beharrei erantzuten**

**Caritas Vitoria, c.b. DEKORAZIO**

**ANCHUSTEGUI**

**Taupada: taula gainean bihotz kolpea**

**EMERZUNT: Mahaitza**

**ANCHUSTEGUI**



## Itzalik ez Sienan

Alejandriako Liburutegi entzute-tsuko liburuzaina zen Eratostenes, duela 2.200 urte. Noizbait, iruzkin bitxi bat irakurri ei zuen papiro batean. Alejandriatik hegoaldera, Siena izeneko hirian (gaurko Asuan), urteko egunik luzeenean, eguzkipeko objektu

bertikalen itzalak, egunero bezala, eguzkiak zeruan gora egin ahala, txikitzen-txikitzen joaten zirela, baina, egun horretan, bereziki, desagertzearaino txikituz. Ur putzu sakonenetan, esaterako, egun horretan, eta ez beste ezeinetan, putzu barreneko ur azala argitzera iristen ei ziren eguzkiaren argi izpiak. Ez bat eta ez bi, Eratostenes ez baitzen geldi egoten den horietakoa, Alejandrian egun horretan itzalekin zer gertatzen zen jakitera tematu zen. Sartu zuen makila bat lurrean zut, eta adi-adi behatu zuen itzalaren mugimendua urteko egunik luzeenean. Eguerdira arte itzala txikitzen joan zen, baina Sienan

ez bezala, desagertzera iritsi gabe. 7 gradu sexagesimaleko angeluarekin gurutzatzen ziren argi izpiak makilarekin, honek zoruan itzalik txikena proiektatzen zuten momentuan. Alejandriatik Sienarako distantzia 800 kilometrokoa estimatu zuen, bi hiriak lotzen zituzten garaiko merkatarri karabanen esperientzian oinarrituta. 7 graduko angeluari 800 kilometroko arku zegokiolarik, zirkunferentzia osoari 50 aldiz handiagoa (7x50~360): 40.000 kilometro. Halaxe kalkulatu zuen Eratostenesek, lehenbiziko aldiz, eta oso errore txikiarekin, Lurraren tamaina, zirkunferentzia, duela 2.200 urte. Makilak, eskuak... burua, ez besterik, udako solstizio egun batez. Pasa berri duguna bezalakoxea.

*“Sartu zuen Eratostenesek makila bat lurrean zut, eta adi-adi behatu zuen itzalaren mugimendua urteko egunik luzeenean”*



BARREN

ARGITARATZAILEA:



ELGOIBARKO IZARRA  
Euzko Legeburuaren Argitzailea

Kalebarren plaza, 2 - 20870 ELGOIBAR

943 744 112

Publizitatea: 943 743 704

[barren.publi@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren.publi@elgoibarkoizarra.eus)

[barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus)

[www.barren.eus](http://www.barren.eus)

BARRENek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarriak lekuz aldatzeko eskubidea. BARRENek ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta eskuizak ataletan adierazita-koen erantzukizunik. **KOORDINATZAILEA** Ainhoa Andonegi **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia, Irati Agirreazaldegi **HIZKUNTZA ARDURADUNA** Ainara Argoitia **PUBLIZITATEA** Leire Rubio **MAKETATZAILEA** Zaloa Arnaiz **ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA** Aitor Lauzurika **ADMINISTRARIAK** Amaia Arrizabalaga, Nerea Osoro **KOLABORATZAILEAK** Ibon Serrano, Ana Alberdi, Eire Vila, Manu Sanchez, Unai Villena, losu Juaristi, Ainhoa Lendinez, Iñigo Lamelas, Jose Luis Azpillaga, Julen Ansola, Edurne Izagirre, Alain Ulazia, Paula Heras, Enetz Ezenarro, Jesus Jimenez, Mikel Artola, Iñaki Odriozola, Ander Sorraluze, Arantza Etxeberria, Irati Agirreazaldegi, Jone Olaizola **INPRIMATEGIA** Gertu Koop.E. **TIRADA** 4.885 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 ISSN 1138-1855

BABESLEA:



ELGOIBAR  
UROLA  
KUNTAMENDUA

LAGUNTZAILEAK:



MENDAKOIA



Gipuzkoako Foru Aldundia



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA

(Hezkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

BARRENEK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANa eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus)

### ► EUSKALDUNA NAIZ ETA...

#### HARRO NAGO

Lerro hauen bidez, zera adierazi nahi nuke: etxe bat alokatzeko “kanpoko” izanez gero dauden zailtasunak. Azkenaldi honetan, nire lagun batek jasan du egoera hau. Higiezin agentziak eta jabeak berdin-berdin aritu dira.

Nire laguna Bolivian jaio zen, Elgoibarren hamaika urte daramatza, alaba elgoibartarra dauka, euskaltzara joaten da, lanean ari da, eta espainiar nortasun agiria dauka, gutariko gehiengoak bezalakoa. Berak Elgoibarren integratu nahi du, arazoa gurea da.

Niri esan izan didate: “Ipurdia erretra daukat jende horrekin”. Norbait pentsatzen du zarauzta batek alokatzen duen etxea egoera onean utzi ezean ez diela gehiago inork etxerik alokatuko zarauzta-rei? Ez, ezta?

Ba Elgoibarren hori ari da gertatzen (eta zoritxarrez ziur aski beste toki askotan ere bai). Aukerarik eman gabe, ez hitz egiteko, ez etxerik ikusteko.

Dena azalaren kolorearengatik!

Hau baldin bada eraiki nahi dugun Euskal Herria, ni baztertzeratza noa.

Euskalduna naiz, euskaldun lotsatua, eta ez, ez nago harro.

N.A.A.

### ► URAREKIN ARAZOAK

Orain Mendaroko etxeetan daukagun urari buruz galderak sortu zaizkit. Kare askorekin heltzen zaigu eta horrek ondorioak eragiten ditu ura berotzeko galdaretan, txorrotetan... Matxuratu egiten dira, eta horrek ondorio ekonomikoak eragiten dizkie askori. Ez al da posible iragazki orokor bat ipintzea denon onerako? Galdera haizeak eramango ez duelakoan, mila esker.

Xabier Urresti

### ESKUTITZEI BURUZKO ARAUDIA

BARRENen edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko dituhaz:

1. Eskutitz guztiak identifikatuak egon behar dute: izen-abizenak, telefono zenbakia eta NAN zenbakia derrigorrezkoak dira.
2. 1.500 karaktere izan behar ditu gehienez eskutitzak.
3. Eskutitzak izen-abizenen inzialekin edota izen-abizenekin argitaratu dira. Ezizenarekin ezingo dira sinatu gutunak. Onartu egingo ditugu identifikagarriak diren taldeak: “Ikastolako irakasleak”, esaterako. Bestalde, sinatzailearekin batera beste lagun batzuk ere daudenean, hauek ere identifikatuta egon behar dute.
4. Pertsona eta erakundeek gutun-egilearen izen-abizenak jakiteko eskubidea izango dute gutun horretan euren izena aipatu edo erreferentziaren bat egiten bada eta gutuna inzialekin sinatuta badago.
5. Ez dira onartuko: biraok, gutun iraingariak eta errespetu faltaz idatzitakoak, buzoneatzeko edo kale banaketa egiteko idatzitako idazkiak, pertsona eta erakundeetara zuzenduriko mehatxuak...
6. Ez dugu gazteleraz datarren eskutitzik argitaratuko.

**sukia**  
Zure etxean zaude

**BOE-ko  
etxebizitza,  
garaje eta trastelekuen  
hurrengo eraikuntza**

**943 31 65 86**

[www.sukia.com](http://www.sukia.com)



## 400 ume baino gehiago udako aisia eskaintzaz gozaten



Elgoibarko Udalak eta Elgoibarko Izarra Euskaltzaleon Topaguneak haurrentzako udako aisia eskaintza bakarra egiten dihardute hirugarren urtez. Guztira, 2 eta 12 urte bitarteko 404 ume ari dira parte hartzen, eta 44 hezitzaile daude lanean. Udako eguraldi peto-petoarekin hasi ziren astelehenean, eta uztailaren 20ra bitartean makina bat jolas egiteko aukera izango dute. Aurten, txikienen egitaraua motelagoa izango da, eta behaketan zein parte-hartzaile bakoitzaren interesetan oinarritutako joko librean enfasi gehiago jarriko dutela azaldu dute antolatzaileek.

## Sebas Etxaniz etxeratzeko eskaera plazara atera zuten hainbat herritarrek



Euskal presoen etxeratzea eskatzeko ekitaldi berezia egin zuen Elgoibarko Sarek, joan den zapatuan, Kalegoen plazan. Sebas Etxaniz preso elgoibartarra izan zuten bereziki gogoan eta Etxanizen adina [74 urte] irudikatuz giza mosaikoa egin zuten. Sebas Etxanizen aldeko mezua eta irudia zeraman murla ere margotu zuten bi artistek, Borxa Oin Artek eta Dani Zelaiak, plazako ekitaldiak iraun zuen bitartean. Elena Rodriguezek gidatutako Zumba saioa ere egin zuten plazan. Bere ikasleak eta batu nahi izan zuten herritarrak aritu ziren dantzan.

## Indarkeria matxistaren prebentziorako programak

Elgoibarko Udalak eta herriko lau ikastetxek (Herri Eskola, Institutua, Ikastola eta IMH) emakumeen kontrako indarkeria matxistaren prebentziorako hitzarmenak sinatu dituzte, hainbat proiektu eta egitasmo finantzatzeko. Guztira, 13.306 euroko dirulaguntza emango die Udalak ikastetxeei. Ane Beitiaren berbetan proiektu hau ikastetxeen arteko elkarlanean oinarritzen da, eta Elgoibarko ikasleen artean, "tratuonen" kultura sortzeko eta mota guztietako indarkeria matxistak arbuiatzeko helburua du.



## Zuzendaritza berria erretiratuen elkartean

Elgoibarko Erretiratuen Elkarteak egin berri du urteko batzarra eta zuzendaritzan aldaketa egin dute. Zortzi urtez lanean aritu den taldeari 14 laguneko talde berri batek hartu dio lekukoa. Zuzendaritza berriko kide gehienek 60+ ekimenean dihardute eta badira Haizea elkarteko emakumeak ere. Beren helburu nagusia elkartearen kudeaketa berritzea da, beti ere orain arteko ekintzak mantenduz. San Bartolome jaietako bazkarirako izenematea ere ireki dute. Astelehen, asteazken eta ostiraletan 11:00etatik 12:00etara.



## Alzola Basque Water enpresak Arriaga industrialdera zabalduko ditu instalazioak

**A**ltzolako ura boteliratzeko instalazioak Arriaga industrialdean dagoen 2.000 metro koadroko industria-nabe batera zabalduko dituztela jakinarazi du Alzola Basque Water enpresak. Era berean, hiru milioi euroko inbertsioa egingo dute, Altzolako urarekin urtean 60 milioi litro boteliaratu ahal izateko. Gaur egun 30 milioi litro ur ekoizten ditu, eta 2,2 milioi euroko fakturazioa du urtean.



Bi mendeko ibilbidearen ostean, 2011n enpresa "amildegian" erortzeko zorian zegoela ikusita aro berriari ekin zion Alzola Basque Waterrek. "Gaur egun boteliaratu aurretik dago salduta Altzolako ura", azaldu du Asier Zabarte enpresako komunikazio arduradunak, enpresak izandako bilakaera eta susperraldia irudikatuzko. Azken urteotako arrakasta Altzolako uraren "kalitatean" eta marketin estrategia apurtzailean oinarritu dutela diote. "Munduan ez dago gure uraren parekorik, munduko orekatuena da, guk dakigula". Arrakastarekin batera ailegatu da, baina, handitzeko beharra, Altzolako bainuetxea egon zen eraikina txiki gelditu baitzaie. Altzolako iturburuarekin lotuta egongo da Arriagako eraikina, lur azpitik joango den 1,5 kilometroko hobi baten bitartez. Instalazio eta azpiegitura berriak urte amaierarako prest egotea aurreikusi dute.

Danobatek lantegia ireki du Italian, merkatu kuota handitzeko

Elgoibarren dagoen Danobaten bikaintasun zentroaren bikia da Italiako Piamonte eskualdean ekainaren 21ean inauguratu zuten planta. Lantegi berriak ekoizpenerako irtenbide aurreratuak eskainiko dizkie enpresei. Elgoibarko makina-erremintaren enpresa liderrak euroguneko hirugarren ekonomia-merkatuan egindako lorpenak egonkortu nahi ditu planta berri horrekin, eta merkatu kuota handitu. Danobatek Italian duen estreinako planta, 2.500 metro koadroko lantegia, Milango zentro ekonomikotik 140 kilometrora dago. Danobateko zuzendari kudeatzaile Xabier Alzagak inaugurazio ekitaldian azaldu zuen "negoziarako aukera berriak sortzeko" zabaldu dutela fabrika. Elgoibarko kooperatibak "gertutasuna eta bikaintasuna" eskaini nahi dizkie Italiako bezeroei. Eusko Jaurlaritzako Ekonomia-eremuko sailburu Arantxa Tapia harro agertu zen ekitaldian. "Euskadiren politika industrialaren arduradun gisa, gaurko egunak harrotasuna, aitortza eta ospakizuna dakartzatza", esan zuen. "Danobatek giharra dauka, eta indar hori berrikuntza da, adimena, teknologia eta egokitzeko gaitasuna".

## Elkarretaratze jendetsuak egin dira Iruñeko erasotzaileak kalean daudela salatuzko



Nafarroako Lurralde-azuzitegiak 'La Manada' taldeko bost zigortuak behin-behinean eta 6.000 euroko bermepean aske lagatzeko erabakia hartu ondoren, epaiaren aurkako oihua plazara atera zuten Elgoibarren eta Mendaron ere. Elgoibarren jendetza batu zen Emakumeen Kontseiluak deitutako lapiko jotzera eta ordu berean batu ziren hainbat mendarotar Herriko enparantzan.

## ▶ IÑIGO KORTABITARTE

KOBIKA JATETXEKO  
SUKALDARIA

Etxetik jaso du Iñigo Kortabitartek sukalderrako zaletasuna, gero lanbide bihurtu duena. Aita Durangoko San Blas hoteleko sukaldaria izan zuen 32 urtez, eta hari lekukoa hartu zion berak, eta gaur egun, Durangoko Kobika jatetxeke jabea da. Sukaldaritza tradizionala modernoarekin uztartuz plater berriak sortzen ditu, besteak beste pintxo eran. Bera da aurten Elgoibarko pintxo lehiaketako epaimahaikideetarikoa bat.

- IRATI AGIRREAZALDEGI -

### ♦ Sukaldaritza tradizionala egitetik zatoz, baina beti berrikuntzei zabalik, ezta?

Gurea *autore-sukaldaritza* da. Jendeari beti gustatzen zaio jatetxe batean arrain edo okela ona jatea, baina hasierakoetan, aperitiboetan batik bat, lantzen dugu *autore-sukaldaritza*. Errezeta tipikoak dira, baina bueltatxo batzuk emanda, guk berezi egindakoak.

### ♦ Pintxoei ere ematen diezue garrantzia, baina. Zer dira mokadutxo txikiak zuretzat?

Gurea ez da ohiko pintxo taberna bat, jatetxea da gurea, baina badaukagu barra bat, eta zain daudenean, jendeak beti probatzen du pintxoren bat. Guk dastatzeko menuak egiten ditugu, eta nahikoa plater daudenez, errazio txikiak izaten dira, pare bat haginkadatan jaten direnak. Beraz, hor jarri dugu arreta.

Pintxoen gure ibilbidea lehiaketa batekin hasi zen. Durangon Bizkaiko pintxo lehiaketa egin zuten, eta herriko partaideren bat nahi zuten. Gu ez ginen horretan aritzen, baina ia derrigortuta sartu eta laugarren postuan sailkatu ginen. Horrela ekin eta hurrengo urtean berriaz aurkeztu ginen, eta pixkanaka, sariak pilatzen hasi ginen. Gure pintxoekin ezagun egin gara,



“Itxura oso ona izan arren zapore ona ez badu, pintxoak ez du balio”

eta jakina, norberari ere horrek jakinmina eta gauza berriak probatzeko gogoia pizten dio. Beraz, saiatzeko gara egunero sukaldetan berritzen.

Ostegunetan degustazio menu berezi bat eskaintzen dugu, merkexegoa: pintxo erako bost plater eta postrea, ardoarekin. Pintxo horiek sariren bat irabazitakoak dira, edo lehiaketetan puntuazio oso onak lortutakoak. Jangelan ateratzen ditugu. Beraz, pintxoak probatu nahi dituzten horiek ostegun gauetan etor-

tzen dira. Barran ere eskaintzen dugu zerbitzua; eskatu eta momentuan egiten ditugu pintxoak.

### ♦ Lehiakide gogorak izango dituzue txapelketetan.

Bai. Bizkaiko, Euskal Herriko eta Espainiako lehiaketetan hartzen dugu parte eta finaletan badira Michelin izar bat edo bi dituzten jatetxeetako sukaldariak, baliabide gehiago dituztenak. Baina aurten Espainiakoan *Mejor concepto de tapa* saria eskuratu dugu, eta hain maila



altuko jendearekin lehiatuta, halako aipamen bat jasotzeak hurrengo batean berriro saiatzeko gogoia piztu digu.

♦ **Elgoibarren epaimahaikide izango zara. Beste herri batzuetan ere aritu izan zara?**

Bai. Nafarroan, Araban, Valladoliden, Ermuan...

♦ **Zer behar du pintxo on batek?**

Zaporea da ezinbestekoa. Pintxo onen artean, estetikak markatzen du ezberdintasuna. Itxurak zeresan handia du. Horrelako lehiaketa bateko pintxo bat jatera doanak zapore onaz gain, beste zer-bait nahi du. Telebistan gauza asko ikusten ditu, beraz, zer-bait berezia ikusi nahi du. Badago estetikari gehiago begiratzen dion jendea ere, baina oso txukuna izan arren zapore ona ez badu, pintxo horrek ez du ezertarako balio. Zapore ona lortu behar da aurrena, eta gero, hori jantzi. Originaltasuna ere aintzat hartu behar da. Ikusi gabeko zer-bait egitea zaila bada ere, ideia on edo polit bat izateak balio handia du. Hala ere, gero eta zailagoa da jendea harritzea, besteak beste, medioetan gauza bitxi asko ikusten dituztelako. Asteko edozein egunetan goseak egonda pare bat pintxo jatera joatea edo lehiaketako pintxoak probatzea ez da gauza bera, lehiaketakoak puntu txo bat gorago egon behar dira.

♦ **Tamainuak badu garrantzia?**

Nahiko zaila da tamainaren kontua jabetze eta tabernentzat. Bezero batzuek ez dute ulertzen pintxo hain txikia izatea, baina pare bat hozkadatan jatekoa izan behar du beti pintxoak. Lehiaketa batekoak txikia izan behar du, zaporeak ondo kontzentratuta dituena. 7-8 osagai horzkada batean dastatzea lortu behar da, eta zailagoa da plater txiki batean egitea handian baino. Beste eztabaida bat da eskwarekin edo sardexka eta labanarekin jan behar den. Nik betiko patata tortilla sardexka eta labanarekin jan dut beti, eta ez dago hori baino pintxo ohikoagorik.

♦ **Zuek aurkezten zareten horiekin alderatuta herrietako lehiaketak ezberdina al dira?**

Taberna eta jabetxeen arabera da

hori. Herrietan igartzen da zeinek parte hartu duen maila handiagoko beste lehiaketaren batean, exijentzia ezberdina delako. Baina kanpora joan eta beste batzuek egiten dutena ikusiz gero, jakin liteke nondik norakoak izan daitezkeen aukerak. Dena dela horrek ez du esan nahi joan ez direnek okerrago egingo dutenik. Guk sorpresak jaso ditugu herri txikitetan ere, urtetan sukaldetan aritutako jendeak oso gauza onak eta bereziak aurkeztu baititu.

*“Pintxoa pare bat hozkadatan jatekoa izan behar da”*

♦ **Pintxorik ohikoena patata tortillarena da. Baina lehiaketakoak bereziagoak dira, noski. Zuek zer egiten diezue pintxo horiek bereziak izan daitezten?**

Asko lantzen ditugu. Zailena ideia ona izatea da, eta horretarako lan handia egin behar da. Gu originala den zer-bait egiten saiatzeko gara, inon ikusi ez dena, formak, kurruskariak, testurak... asko lantzen ditugu. Beti erabiltzen ditugu antze-man daitezkeen produktuak. Bada jendea produktu bereziak, saltsa exotikoak... erabiltzen dituena, baina guk hemen bertako produktuak erabiltzen ditugu. Esaterako, pintxo arrakastatsuenetarikoen osagaiak arrautza eta oilaskoa dira. Etxeko erreze-tei tamaina txikia eta ukitu modernoak ematen saiatzeko gara. Arrautzarenak, adibidez, arrautza ikaztua irudikatzen du patata eta urdaiazpiko kremarekin, hau da, arrautza apurtua, baina txupito batekin. Oilaskoarena, berriz, lumagorria da onddoekin. Jendeak zaporea erraz eza-gutzeko, baina itxura berezia emanaz, modu originalean.

♦ **Zer espero duzue Elgoibarko pintxo-etatik?**

Mira zabalekin etorri gara. Tabernariak gogoz ikusi ditugu, eta prestatzen denbora pasa dute, beraz, ez dugu ezer zehatzik espero, probatu, ikusi eta orduan jakingo dugu.

**URTEZ URTE KALITATE HOBEKO MOKADUAK**

Hamar urte dira pintxo lehiaketa Hasi zenetik, eta lehenengotik oraingora sekulako alde dago urtetan epaile lanetan aritu den losu Mugertza sukaldari elgoibartarraren esanetan. “Gero eta taberna gehiagok hartzen du parte, eta maila ere handiagoa da, elaborazioan ez ezik baita aurkezpenean ere”.

Kalitatean gora egin da, baina baita pintxoaren prezioan ere. Mugertzak argi du, baina: “Landutako pintxoak egin behar dira, baina kostuari erreparatuta. Kontua ez da foie zati bat ipintzea, horrekin sekulako pintxo egin daitezkeen arren, dirua galtzeko arriskua dagoelako. Gogoan dut Sigmakoek urte batean prestatu zutena. Pintxo bako gehiago platera zen hura, eta herriarren saria eskuratu zuen, bistan da, baina hura ez zen pintxo”. losu Mugertzaren esanetan pintxo “ondo landutako mokadu fin bat” izan behar da.

Askotariko pintxoak izaten dira, eta baita osagaiak ere. “Modak izaten dira. Bakailaoa ohiko osagai izaten da. Izan dira boladak, esaterako, askok modena ozipina bota izan diotenak edo beste askok ahuntz gazta jarri diotenak”.

Aukerak asko dira, eta jendea ere erruz ibili ohi da tabernetan lehiaketak irauten artean. Tabernariak lan handia egiten dutela uste du Mugertzak. “Lehiaketaren aitzakian, jendea kalera irteten da, eta hiru bat probatzen ditu egun bakar batean. Kanean ere ibiltzen da zeresana, eta entzundakoaren arabera propio batera edo bestera joaten direnak ere asko dira”.

Aurten, lehia estua izango dela aurreratu du Mugertzak.



# Ezkontza gehigarria.....

Bai, nahi dut. Hori da ezkontzako esaldi esanguratsuena. Askorentzat ezkontzea da bizitzan hartzen duten erabakirik garrantzitsuena eta bikotekideari ez ezik eguna modu berezian ospatzeari ere esan ohi dio: bai, nahi dut. Festa giroan egin ohi dute dena, bizitza guztian gogoratuko duten eguna izango delako, eta horretarako, detailerik txikiena hartu behar izaten da kontuan.

Bai, nahi dut. Ezkongaien ez ezik gonbidatuek ere ondo pasatu nahi dutela esan ohi dute eta hori hala izan dadin, ezkontzera doan bikoteak ospakizuna antolatzeke azkenaldiko joerak hartu ohi ditu kontuan: gonbidatuentzako oharrak, jantziak, orrazkera, loreak, argazkiak, jatekoa, musika...

Ezkontza tradizionalak batzuek, moderno edo bereziak besteek, baina denek 'bai, nahi dut' esango diote. Ondo, prestatu nahi dute, ondo pasatu nahi dute eta ondo gogoan izan nahi dute egun hori.

**NAVA**  
INPRIMATEGIA  
Santa Ana, 44 - ✉ 208

Telf. eta Faxe: 943 744 451  
E-mail:nava@euskalnet.net  
20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)

**Garbiñe**  
Estetika

Zure azala  
zaintzen dugu

Pedro Migel Urruzuno, 27 - 943 743 132 - garanzeta@gmail.com

## Boda prestatu, 'planner' bat aukeratu.....

Ezkonagai batzuek beraiek egiten dituzte aurretiazko prestakuntza lan guztiak, baina gero eta gehiago dira *Wedding planer* edo ezkontzak prestatzen propio jarduten duten horiengana joaten direnak. Lanbide hori bere egin duten jendea eta enpresak badaude eta prestakuntzak horien esku jarriz gero, etxeko edo ingurukoak ezkontzarako dotore prestatu, hara joan eta gozatu besterik ez dute egin beharko ezkongaiak. Modan daude *wedding planner*-ak ezkontzak ondo antolatzeaz ez ezik eguna zoragarria izateaz arduratzen diren profesionalak.

## Zuriaren partez, beste hainbat kolorez.....

Neskaren soinekoak ezkontzetan zeresan handia ematen du. Orain arte zuria izan da gehienetan, ospakizuna elizan egin denetan batez ere. Gero eta gehiago dira, ordea, elizkizunen partez bestelako ezkontzak egiten dituztenak eta horrek arropetan eta osagarrietan ere aldatketak ekarri ditu. Orain dela pare bat urte hasi ziren

ezkontza-beloak arrosa argiak edo artile kolorekoak ipintzen; zapata zurien ordez koloretakoak janzten, lore-sortarekin edo beste osagarriren batekin bat eginez; eta makillajearen eta manikuraren kolorea iluntzen. Koloreak kolore, 2019an originalak izango dira emaztegaiak. Ordurako beloa ez ezik soineko osoaren kolorea aldatuko baitute hainbatek. Arrosa argia, uraren berdea... tonu argi eta leunak izango dira gehienak.

## Ingurua arina, txukuna eta apaina.....

Handitasunez eta gauza ugariz josiak izan ohi ziren ezkontza tokiak lehen. Piskanaka, ordea, gero eta txikiagoa eta arinagoa da dena, minimalismorako joera gero eta handiago delako. Eta ez soilik gonbidapenetan. Menuen esku orrietan, karteletan, mahai-apaingarrietan, mahai-oihaletan eta baxeran ere kolore argiak erabiltzen dira gainontzeko detaile txikiak nabarmentzeko. Baxera kolore ilun edo marrazkiduna bada mahai-oihalak ez du honen dizdira estaliko edo loreontzia berezia bada loreak izan beharko dira arruntak, baina ederrak izateari utzi gabe, esaterako, eukalpto, panikula...



Ezkontzeratoko orrazkera (orrazkera bildua eta erdi bildua) eta makillajea

**35€**

Astearteetan jubilatuen eguna

**DONNA**  
ileapaindegia

943 744 388  
Minaurventa, Bilbo



**ileapaindegia**  
**estetika**

**943 747 4 21**

San Bartolome, 33 behea - ELGOIBAR

**NOA**

 Noa Estetika



**HAIR'S**  
**ILEAPAINDEGI**

San Bartolome, 6 behea  
Tel.: 943 53 12 79

**ASTEARTEETAN JUBILATUEN EGUNA:**

- Orraztu 9€
- Garbitu, moztu eta orraztu 18€



San Ignazio, 1 - ELGOIBAR  
Tel: 943 53 17 45  
jasone@jasonesq.com  
www.jasonesq.com

Ezkontza egingo gara!!

Sartu, aukeratu eta eraman itzazu!!

Xabi & Ane

## Mahai batetik bestera, hainbat aukera.....

Marisko, haragi eta buffetekin jarraitzen dutenak badira, noski, baina azken urteotan aukeran jarri ohi dituzte janari guneak fusioa egin ahal izateko: sushia, janari mexikarra... Aukera ezberdinak jartzea bada aniztasunaren adierazle ere. Askok aukeratuko dute hemendik aurrera buffet gune ezberdinekin osatutako ospakizuna eta jateko tendentzia bereziak probatzeko aukera emango diete ohiko menuetara ohituta dauden gonbidatuei.

## Gonbidapenak, deitzeko aukera denak.....

Harritura utzi gonbidatuak hasiera-hasieratik. Ezkontzan egotea nahi duten horiek gonbidatzeko aukera asko dago, bai emango dieten hortan, baita jakina-



razteko erabiliko dituzten hitzetan ere. Koloreak askotarikoak izan daitezke, eta baita materialak ere; hasi, ohikoenetatik, paper eta kartulinazkoetatik, eta egurrean egindakoetara edo ilunetan dizdira egiten duten zigilu fosforeszentedunetara. Kolore bizi eta deigarriak testu goxo eta erromantikoeekin konbinatzea da au-

keretariko bat.

## Mahai batean zenbait opari, aukeratzeko ugari.....

Banan-banan gonbidatu bakoitzari paper edo bilgarri txukunetan ipinitako opariak banatu beharrean gero eta ohikoagoa da banketea kolorez janzteko opari-mahai bat ipintzea. Mahai horretan askotariko opariak egon daitezke aukeran: edariak, gozokiak, gailetak, oroigarri txartelak... Opari bereziak egiteko modu polita izan daiteke.

**autocares Revert**

**Kalitatea eta zerbitzu ona, eskura**  
 Avd. P. Muguruza, 29 - 5º A - 20870 ELGOIBAR Gipuzkoa  
 Tel.: 943 741 853 - Fax: 943 531 386  
 autocaresrevert@gmail.com  
 www.autocaresrevert.com

**AGURTZANE c.b.**

**Fotodepilazioa egiten dugu**

Santa Ana, 18  
 20870 Elgoibar  
 Tel.: 943 741 864

**Ile-apaindegia**

**Mimoz landutako orrazkerak**

Pedro Migel Urruzuno kalea, 10 - 943 256 105

**Gizonezkoen ile-apaindegia**  
 JOSE ANTONIO

Zerbitzu bakoitzean, toalla eta erabili eta botatzeko bizar-xafiak ere sartzen dira, higienezaren gaineko araudiak eskatzen duena betetz.

- Etorri ahala atenditzen dugu
- Gazteentzako moda zein klasikoa
- Bizar txukunketak egiten ditugu
- Ilea zaintzeko KERASTASE eta L'OREAL tratamenduak, gizonezkoentzako zein emakumezkoentzako

**Kontsultatu hemen informazioa:**  
[www.peluqueriajoseantonio.com](http://www.peluqueriajoseantonio.com)

Errosario kalea, 30 - Elgoibar  
 Tel: 943 741 492

## Berdea, urteko kolorea.....

Modako kolorea aukeratu nahi izanez gero, berdea da aproposena banketea janzteko. Izan ere, gonbidatuek kolore argiak aurkitzea esperoko dutenez, aho bete hortz utziko dituzte berdea hautatzen duten bikoteek. Berdeak naturarekiko lotura adierazten du, edozein urtarorekin bat egiteko aproposa da eta mahai-apaingarrietan, mahai-oihaletan zein bestelako edozein osagarritan erabili ahal izango da.



aukera bat: egurra, espartzua, hostoak, adarrak...

## Alde egin, bitxi bezain arin.....

Ospakizun lekutik joateko ordua iristen denean makina bat aukera izan ohi dira, eta senar-emazteak modu berezian alde eginez gero, horrekin ere harritura utzi ditzakete gonbidatuak.

Ohiko auto batean joan ordez, bestelako garraio-bide bat hartzea da modua: motoa, zaldi-gurdia, autobusa eta ausartenek, helikopteroa.



## Natura, kanpoko airea edo barruko loreen apaindura.....

Ezkontzetako azkenaldiko joera naturarekin bat egitea da. Ospakizuna aire zabalean, kanpoan, egiteko aukerarik izan ezean eliza zein ezkontza egingo den aretoa landare luze eta hostotsuekin apaintzea izan daiteke modua, gonbidatuak baso batean daudela senti dezaten. Gainontzeko apaingarriak naturalak izatea da beste

Mila aukera, bakoitza berera. Hauek ideia baino ez dira norbere izaerara eta gustuetara moldatu daitezkeenak, beti ere amestutako ospakizuna prestatzeko baliagarri izan daitezkeenak. Ingurua egokitu, norberarentzat arropa eta oinetako eroak aukeratu eta denak gustura utzi ondoren senar-emazteek egunaz eta bidiaz gazatu



# estetikaalire

Upaiz zaharra, 1 behea - Tel.: 943 531 636 - Elgoibar - [alireestetica@hotmail.com](mailto:alireestetica@hotmail.com) - [www.estetikaalire.com](http://www.estetikaalire.com)

Zatoz eta prestatuko zaitugu!





## ARAMBURU

BIFIXIDENDA

San Frantzisko, 26  
Tel./faxo: 943 742 535  
Elgoibar



## MERAKI

ELEKTRIKO DEKORAZI

943 246 225

FRANZISKOR KALEA, 20 - ELGOIBAR,



## Kala

LORADENDA

San Frantzisko, 24  
Elgoibar  
**943 744 516**  
[kala.loradenda@gmail.com](mailto:kala.loradenda@gmail.com)





## Sanjoanetan, kantuan eta dantzan suaren bueltan

**E** guzkiak sanjoanetan dantza dio esakerak, baina sanjoanen bueltan suaren inguruan dantzan eta saltoka ibili direnak herritarrak izan dira. Elgoibarko Izarrak Ekigain jaia egin zuen Sallobenten ekainaren 21ean, eta txar guztiak sutan erreta, onei deika jardun ziren musika lagun zutela. Zapatuan ere piztu zen beste surik bazterrotan. Altzolan ere sua piztu eta enborra altxatu zuten. Mendaron, berriz, Deabru Beltzak taldeak *Su à Feu* ikuskizuna eskaini zuen. Akelarrea ere izan zen Mendaron. Argazki gehiago eta bideoak:

[www.barren.eus](http://www.barren.eus)



Arg.: Amagoia Zabala



Arg.: Amagoia Zabala



## Uztailaren 6an hasita hamar film emango dituzte aire libreko saioetan Kalegoen plazan

Aire libreko zine emanaldiek aurten ere hartuko dute lekua udan. Uztailaren 6tik 29ra bitartean fantasia, abentura eta umorezko hamar film eskainiko dituzte: *El cuaderno de Sara*, *Coco*, *Piratas del Caribe: la venganza de Salazar*, *Bebe jefazo*, *Lego Ninjago* (euskaraz), *Gru 3: mi villano favorito*, *La bella y la bestia*, *Guardianes de la galaxia 2*, *Señor dame paciencia* eta *Kilian Jornet, path to Everest* dokumentala.

Saio guztiak Kalegoen plazan izango dira 22:30ean eta filmak honako egunetan emango dituzte: uztailak 6, 7, 13, 14, 21, 22, 26, 27, 28 eta 29. Euria izanez gero, egun bat atzeratuko dituzte emanaldiak.

Iazko ikusle kopurua batez beste 450 lagunekoa izanik aurten 500 eta 700 artean izango dira jarriko dituzten aulkiak.

Aurtengo berrikuntza proiektorea izango da. Izan ere, zer-



bitzu eta irudien kalitate hobea eskaintzeko proiektore berria erosi du Udalak.

## Hegaztiak ikusi eta haien berri jasoko dute haur eta gazteek azokan

Bihar, ekainak 30, nekazaritza eta abeltzaintza feria izango da Elgoibarren. Goizean, herriko baserriarrek ekoiztutako produktuak Kalebarren plazan ipiniko dituzte salgai, eta 11:00etatik aurrera, pintxoak dastatu ahal izango dira Elgoibarko Herri Eskolako Guraso Elkartearen txosnan. Bestalde, Kale Kantariak giroa alaitzen ibiliko dira eguerditik aurrera kaleetan. Haur eta gaztetxoentzako hegaztien erakusketa izango da eguerdian. Urruzuno baseritik ahate mutua, indioliar beltza, antzarrak, gineako oiloak, euskal oiloak, ahateak... ekarriko dituzte. Hegazti mota bakoitzaren arrautzaren ezaugarriak ere azalduko dituzte. Gainera, txikienek lurmezin eskulanak egingo dituzte. Eguerditik aurrera, Aita Agirre plazan ganadu erakusketa egongo da.

## Pintxo guztiak agortuta Sagardo Egunean



Arrakastatsua izan zen Atabal danborrada elkarteak antolatu eta joan zen ostiralean Maalan egindako Sagardo Eguna. Eguraldiak sagardoa edateko gogoa piztu zuen eta baita hari lagunduz pintxoak jatekoa ere. Izan ere, 600 pintxo prestatu zituzten eta guztiak agortu ziren. Jan eta edana banatzeaz gain, zozketa ere egin zuten bertaratutakoen artean. Bereziartua sagardotegian bi lagunentzako jatordua zozketatu zuten eta Merce Rey eta Alfonso Migales izan ziren irabazleak.

## Arin-arin eta fandango ikastaroa egingo dute Mendaron uztailaren

Herriko jaietan dantza egiteko eta erromeriarako prestatzeko, Udalak, Gaztelekuak eta Gaztetxeak arin-arin eta fandango ikastaroa antolatu dute Mendaron uztailerako. Uztailaren 2tik 19ra izango dira saioak asteleheneretan eta ostegunetan 19:00etatik 20:30era gaztetxean. 12 urtetik gorakoentzat dago antolatuta ikastaroa eta sei saioen truke 20 euro ordaindu beharko dituzte parte hartu nahi dutenek. Izena emateko Aitzbeltz, Ormola edo Jubilatuetara joan behar da.



## Kirol Campusa hasi dute 251 umek eta nerabek

6 eta 13 urte bitarteko 251 umek eta nerabek (220 izan ziren iaz) parte hartuko dute Elgoibarko Udal Kirol Patronatuak antolatutako 2018ko Kirol Campusean. Uztailaren 20ra bitartean hainbat kirol jardueretan hartuko dute parte. Hamahiru monitoren gidaritzapean arituko dira egunero, 9:30etik 12:30era. "Kirolarekin, naturarekin eta lagunekin jolasten oporrak osasuntsu pasatzeko helburua" du Kirol Campusak. Udako Kirol kanpaina ere jarriko dute martxan. Kasu honetan, 51 haurrek hartuko dute parte igeriketa ikastaroan, hamabi neskek Zumba-Krosfit ikastaroan eta zortzi umek Spinning Gaztean. Honenbestez, guztira 322 partaide izango dira Udal Kirol Patronatuko udako eskaintzan.

## Nahaste Borraste probaren 34. ekitaldia jokatuko dute herriko kaleetan, gaur

34. Nahaste Borraste proba herrikoia antolatu du Kimetz elkartek gaurko (ekainak 29). 19:00etan hasiko da Kalegoen Plazatik. Izena emateko, Kimetz elkartera joan beharko da, 17:00etatik 18:30ak bitartean. Doakoa da izenematea. Partaideek hiru probatan lehiatu beharko dute: zazpi kilometro inguru egin beharko dituzte bizikletan lehenengo, ondoren 400 metro egingo dituzte antxitika 25 kiloko zakua bizkarrean hartuta, eta azkenik, 1.500 metroko ibilbidea osatu beharko dute saltaka.



## Pala txapelketetako txapelak Mendarora eta Mutrikura joan dira



Lau pilotari mutrikuar ailegatu ziren emakumeen binakako pala txapelketaren zazpigarren edizioko finalera eta iazko buru berdinetan amaitu zuten irabazleen txapelak, Maite eta Iratxe Barruetabeña ahizpen buruetan, hain zuzen ere. Nagusitasunez irabazi zuten Idoia Arrillagaren eta Eva Ibarrolaren aurkako finala, 22-14ko emaitzarekin. Gizonezkoen hirugarren edizioko finala, berriz, mendaroarren arteko lehia izan zen. Partida parekatua jokatuz Gorka Lizarralde eta Markel Portuk Asier Larrañagaren eta Iraitx Ferreiraren aurka. Azkenean Lizarralde eta Portuk 22-15 irabazi zuten partida. Lagunak Pilota Eskolak antolatutako bi txapelketetan 46 bikote aritu dira lehian, hama sei emakumezkoetan eta 28 gizonezkoetan.



## Haundi mailaz igo da Durangoko Kulturalak Bigarren B Mailara igotzea lortu eta gero



**D**urangoko Tabira futbol zelaian ospatu zuten Haundiko hainbat jokalarik, C.D. Elgoibarreko zuzendaritzako kideek eta zaleek (goiko argazkietan) Ohorezko Erregional Mailararako igoera. Bigarren B Mailara igotzeko azken kanporaketako itzulerako partida jokatu zuten durangarrek domekan Kanaria Handiko San Fernandoren aurka, eta 2-0 irabazi zuten (0-1 irabazi zuten itzulerakoan). Euskal talde bat Bigarren B Mailara igo izanak 'domino efektu' modukoa eragin zuen beheargoko mailetan eta Haundi izan da onuradunetako bat Ordizia taldearekin batera. Honenbestez, denboraldi bakarra egin du Haundik inoiz egon den mailarik baxuean. C.D. Elgoibarreko presidente Jon Basurtok uste du denboraldi oso ona egin duela Haundik, eta nabarmendu du partida bakarra galdu zutela Eguberrietako atse denaren ostean. Herriko jokalarien alde eginiko apostuari ere duen garrantzia aitortu dio Basurtok. "Elgoibarko hamalau jokalaria izan ditu Haundik eta erregionalean eta jubenilen taldean dabiltzan sei jokalarik egin dute debuta talde nagusiarekin".

## Maite Maiora gailendu da Fuente De-ko kilometro bertikalean, hirugarren urtez jarraian

Maite Maiorak jarraian eskuratzen duen hirugarren garaipena lortu zuen Fuente De-ko Kilometro Bertikalean, Kantabrian. Era berean, gizonetzkoetan, Iñigo Larizek ere podiumaren hirugarren koskara igotzea lortu zuen, hirugarren urtez jarraian. Bi kilometro eta seiehun metroko ibilbidean 900 metro igo zituzten Fuente De-ko Kilometro bertikalaren 9. ekitaldian parte hartu duten 300 lagunek. Eta beroak probaren zailtasuna areagotu besterik ez zuen egin. Maiora primeran moldatu zen ibilbidera zein berora eta hasieratik hartu zuen lasterketaren burua. Bakarrik ailegatu zen gailurrera, eta bi minututik gorako aldea atera zion bigarrenari. 43 minutu eta 50 segundoan osatu zuen igoera. Proba irabazi zuen aurreko bi edizioetan denbora hobeak egin zituen: 39:36, 2017an; eta, 39:46, 2016an.



## Nerea Sasiain laugarren Espainiako txapelketan

Hamazortzi urtez azpiko Aire Libreko Espainiako Atletismo Txapelketa jokatu zuten aurreko asteburuan Xixonen. Nerea Sasiainek laugarren postua (57.73) eskuratu zuen 400 metroko lasterketan, pista estaliko Espainiako Atletismo Txapelketan lortu zuen postu bera, alegia. Andrea Jimenezek irabazi zuen urrezko domina (54:37). Txapelketan parte hartu zuen Mintxetako bigarren ordezkariak, Martin Hernandezek, ez zuen finalerako salkatzerik lortu 800 metroko lasterketan.

## Mayi Mujika zazpigarren Flysh Trailean

Mayi Mujikak zazpigarren postuan sailkatzea lortu zuen Zumaia Flysch Trail mendi maratoian (42 Km. +2.250 metro). Mendi lasterketan Espainiako Kopako laugarren proba zen Zumaiakoa eta abuztuaren 5ean jokatu da azkenengoa, *Cursa Per Muntanya Vistabella*, Valentzian. Mendi lasterketako euskal selekzioa ordezkatzeko duen Mujika sailkapen nagusiko hirugarren postuan ailegatuko da azken proba horretara.



Arg.: Baleike

**LANA.....**

**Eskeraerak**

Sukaldari laguntzaile eta pertsona nagusiak edo umeak zaintzen lan egiteko prest. Orduka. ☎ 694 432 670

Adinekoak zaintzen lan egiteko prest, baita etxeko langile modura ere. ☎ 612 216 458

Adinekoak zaintzen lan egiteko prest. Orduka, aste bukaeretan edo gauetan. ☎ 632 229 972

Adinekoak edo umeak zaintzeko prest. Orduka edo etxeko langile moduan. Erreferentziak eta gidabaimena daukat. ☎ 689 571 882

Emakume euskalduna prest adinekoak eta gaixoak zaintzeko. Arratsaldez. ☎ 617 571 210

Adinekoak edo umeak zaintzeko zein garbiketa lanetarako prest. Paperak legeztatuta. ☎ 688 813 569

Garbiketan zein adinekoak edo umeak zaintzen egingo nuke lan. Esperientzia handia eta erreferentziak. ☎ 688 712 075

Adinekoak edo umeak zaintzeko prest. Orduka edo etxeko langile moduan. Garbiketa lanak ere egingo nituzke. ☎ 627 230 784

Adinekoak zaintzen lan egiteko prest. Esperientzia daukat. ☎ 612 222 362

Adinekoak zaintzen lan egiteko prest, baita etxeko langile modura ere. ☎ 631 558 243

Adineko pertsonak zaintzen lan egiteko prest. Etxeko langile moduan ere arituko nintzateke. ☎ 631 556 507/620 619 287

Gauze adinekoak zaintzen lan egiteko prest. Umeak zaindu edo garbiketa lanak ere egingo nituzke. ☎ 616 457 254

Adinekoak edo umeak zaintzeko prest. Gauze, orduka edo etxeko langile moduan. ☎ 631 891 709

**Eskaintzak**

Esperientzia duen zerbitzari euskalduna behar da lanaldi osorako. ☎ 943 741 230

Elgoibarko denda batean lan egiteko neska euskalduna behar da. Interesatuak biddali curriculuma helbide honetara: elgoibardenda@hotmail.com

Adineko pertsona bat zaintzeko eta etxeko lanak egiteko norbait behar dut. ☎ 616 421 970 (Maria)

**ETXEBIZITZAK.....**  
Apartamentua alokagai. Logela bat, egongela, sukaldia eta bainugela. ☎ 696 550 356 / 653 863 482

Etxebizitza salgai ONUn. Igogailua eta ganbara ditu. 92.000 euro, negoziagarriak. ☎ 661 81 60 06 (Peli)

Etxebizitza hartuko nuke alokairuan Elgoibarren. ☎ 677 259 560

Etxebizitza salgai Elgoibarko Santa Ana kalean. 3 logela, trastelekua, garaiea eta igogailua. Balkoidun etxea. Berokuntza instalazioa eginda. ☎ 688 607 655

Etxebizitza alokagai Conilen udarako. ☎ 699 276 962 (Lola Peces)

**GARAJEAK.....**

Marra arteko garaiea salgai pista beltzean. ☎ 696 550 356 / 653 863 482

**OSPAKIZUNAK.....**

Uztailaren 28rako Sigmako auzotarrek ospakizuna antolatu dute. Bazkarira joan nahi dutenek uztailaren 10a baino lehen eman behar dute izena. 47 € sartu behar dituzte Laboral Kutxako ES97 3035 007 21 0071135348 kontu zenbakian.

Merkatu txikiko iragarkiak hiru astez argitaratzen ditugu. Salmenta eta alokairu iragarkiak ordaindu egin behar dira.


Etxebizitzak, garaieak eta lokalak: 18€ (alokairua) - 22€ (salmenta). Autoak saltzea: 18€ . Bestelakoak: 10€.

Iragarkiarri erretratua jarriz gero, 6€ gehiago ordaindu behar dira.

BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK:

Etxebizitzak, garaieak eta lokalak: 15€ (alokairua) - 20€ (salmenta). Autoak saltzea: 15€. Bestelakoak: 8€.

Iragarkiarri erretratua jarriz gero, 5€ gehiago ordaindu behar dira.




Consejo Vasco de Colegios de Administradores de Negocios  
Euzko Eskola Administrazioaren Irakasle Komunitatea

**Etxejabeen komunitate batean, jabe baten etxebizitzako atean pintadak azaldu dira. Komunitate-aseguru bat badaukagun arren horrelako egoerak ez ditu jasotzen. Pintadak atearen kanpo aldean daudenez, jakin nahi nuke komunitatea derrigortuta al dagoen konpontzera, izan ere jabeak komunitateari eskatu dio atea aldatzea.**

Etxebizitza edo lokal bakoitzaren jabeak jabetza eskubidea dauka, berezia eta eskusiboa, bere elementu pribatuak babesten dituena. Beraz, etxe bakoitzeko atea jabearena baino ez da eta ezaugarri bereziak dauzka, kanpora begira baitago. Elementu hori jabe horrena baino ez da eta atea zaintzea eta mantentzea jabe bakoitzari dagokio. Beraz, legearen arabera, jabe bakoitzaren betebeharra da etxebizitza eta norbere instalazioak egoera onean mantentzea.

Hortaz, jabe bakarrarena den elementua izanik, jabe bakoitzak bermatu behar du bere zaintza eta mantenua, ez komunitateak.


**Aholkua: Komunitatea ez da edozeinek eraikin batean komunak ez diren elementuetan egindako ekintza bandaliko pertsonalen arduradun. Beraz, horrelako egoeretan kalteak jasan dituen etxejabeak ordaindu beharko ditu kalteen konponketak.**



**ROSA M<sup>a</sup> PINTADO**

*Etxaldean Administrazioarako-Gradu ikasketen arduraduna Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749*

**660 969 679**  
**rosapf@telefonica.net**

Enpresa kolaboratzailea:  P. M. Urruzuno kalea, 6 - Elgoibar



## ZORIONAK


Argazkiak eguzten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira BARREneko bulegora, edo [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus) e-postara bidali.



Zorionak, **June**, etxekoan partez, astelehenean 8 urte beteko dituzulako.



Zorionak, **Eneko**, astelehenean 3 urte bete zenituelako. Muxu asko familiakoan partez.




Zorionak, **Libe**, asteartean 2 urte. Segi hain jator eta alai! Muxu bat. Familiakoek, eta bereziki, Aimarrek.



Zorionak, **Nora**. Etxeko sorginak bihar 4 urte. Etxeko guztion partez. Ondo pasako dugu.



Zorionak, **Irune**, ekainaren 26an 6 urte bete zenituelako. Neba Xabiren eta gurasoen partetik.



Zorionak, **Telmo**, larunbatean 4 urte. Muxu bat etxekoan eta bereziki Lukenen partez.



Zorionak, **Gorane**, 12 urte bete dituzulako. Muxu handi bat familiakoan eta, bereziki, lkerren partez.



Zorionak, **Unax**! Jarraitu alai eta jator. Paixo handi bat familiakoek eta belarriatik tirakada Maddik.



Zorionak, **Maddi**, gaur 7 urte bete dituzulako. Muxu handi bat, guapa, eta segi beti bezain jator.

Erretratu bakarreko agurra: 4'50€  
Argazki bikoitza: 7€ Hirukoitza: 9€  
Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€

### ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK

Erretratu bakarreko agurra: 3'50€  
Argazki bikoitza: 6€ Hirukoitza: 8€  
Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€

Argazkiak eguzten eguerdia (12:00etarako) baino lehen ekarri behar dira BARREneko bulegora, edo [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus) e-postara bidali.



## LAN DEIALDIA

LH eta DBHko Akademia lan egiteko curriculumak jasotzen dira. Interesatuak bidali helbide honetara:

[akademiaelgoibar@gmail.com](mailto:akademiaelgoibar@gmail.com)



BARREN

Jarri ezazu zure publizitatea  
**BARREN** astekean edo  
[www.barren.eus](http://www.barren.eus) webgunean

943 744 112

[barre.publi@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barre.publi@elgoibarkoizarra.eus)

Kalebarren plaza, 2 - 20870 ELGOIBAR



San Frantzisko, 21 - Elgoibar  
Tel.: 943 740 359

[www.uzurioptika.com](http://www.uzurioptika.com)



TRANSPARENTZIA  
OSOA

Berrial

# LAN-POLTSA: BARREN ASTEKARIA

Ordezkapenak egiteko lan-poltsa osatzen ari gara:  
**KAZETARIAK, KOMERTZIALAK ETA MAKETATZAILEAK**

Interesatuak curriculum vitae-a helbide honetara bidal dezakezue:

[barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus)

Kalebarren plaza, 2

20870 ELGOIBAR

943 744 112



## 29 BARIXAKUA

**18:00-20:30** Odol ateratzea. Elgoibarko Odol Emaileen Elkartearen. Osasun Zentro ondoan.

**19:00** Elgoibar BHI Institutuko diploma banaketa. Herriko Antzokia.

**19:00** XXXIV. Nahaste Borraste. Antolatzailea: Kimetz elkarte.

## 30 ZAPATUA

**Hilabete bukaerako azoka**

**9:00-14:00** Baserriko produktuen salmenta. Kalebarren plazan.

**11:00** Pintxo salmenta. Kalamua Guraso Elkarte. Kalebarren plazan.

**12:00** Kale kantariak. Kalebarren plazaatik irtengo dira.

**12:00** Hegazti tailerra haur eta gazteentzat.

**Egueditik arratsaldera**, Ganadu erakusketa Aita Agirre plazan.

## 6 BARIXAKUA

**12:00** San Bartolome eta Errosario kaletan zehar. Antolatzailea: Elgoibarko Izarra.

**19:00** Sanlo Eskubaloi Kirol Taldearen urteko batzar nagusia. Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

**21:30** Bideo Foruma: *Evelyn*. Gidaria: Loredi Salegi. Kultur Etxeko hitzaldi gelan. Antolatzailea: Haizea.

## IDOTORBEKO JAIK

Ekainak 29, 30 eta uztailak 1

### 29, BARIXAKUA

**11:00** Prozesioa eta meza.

**Ondoren**, salda eta txorizoa, Armueta harategiak eskainita.

**14:00** Auzotarren eta jubilatuen bazkaria.

**22:00** Idi-demak. San Pedro Saria. Parte hartzaileak: Oliden, Motxo eta Ixidro erretegia.

**Egun guztian zehar**, Jon Ostolaza eta Unai Narbaiza trikitilariak.

### 30, ZAPATUA

**17:00** Mus txapelketa. Izen ematea: 25 euro bikoteko.

**Gero**, sari banaketa.

**19:00** Trikipoteoa, Obaneuke taldeak girotuta.

**21:00** Lagunarteko afaria, San Pedro elkartearen. Izen ematea: 943 740 010.

**23:00** Erromeria, Obaneuke taldearekin. Umeentzako playback berezia.

**02:00** Parrillada doan, Sahatzu harategiak eskainita.

### 1, DOMEKA

**11:00** Meza.

**Ondoren**, salda eta txorizoa, Goikoetxe harategiak eskainita.

**12:00** Haritz Euskal Dantzari Taldea.

**13:00** Bolo-joko txapelketa.

**14:00** Lagunarteko bazkaria.

**16:00** Umeentzako jolasak.

**17:00** Rusoren zezen txikiak.

**Egun guztian zehar**, Baltzola eta Andonegi trikitilariak.

## Aire libreko zinea (Kalegoen plazan)



### 'El cuaderno de Sara'

6 Barixakua, 22:30

**Zuz.:** Norberto Lopez Amado. **Espainia, 2018.**  
**Iraupena:** 115 min. **Generoa:** abentura, intriga eta drama. **Aktoreak:** Belen Rueda, Manolo Cardona, Marian Alvarez, Enrico Lo Verso, Florin Opritescu, Malcolm Sitte, Ivan Mendes, Marta Belaustegi, Nick Devlin, Ramon Barea. Laura urtetan ari da Congoko oihanean desagertutako bere ahizparen bila. Bera agertzen dela dirudien herri bateko argazki bat ikusi eta Laura oihanera joango da han izan ditzakeen arriskuei errepertatu gabe, bere ahizpa aurkituko duen esperantzarekin.

Botika ordutegiak 09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

GUARDIAK							
Egunez: 09:00-20:00		Iluntzean: 20:00-22:00			Larunbatak: 9:00-14:00 (*)		
29 BARIXAKUA	30 ZAPATUA	1 DOMEKA	2 ASTELEHENA	3 MARTITZENA	4 EGUAZTENA	5 EGUENA	6 BARIXAKUA
Egunez <b>*Fernandez</b>	Egunez <b>Yudego</b>	Egunez <b>Yudego</b>	Egunez <b>*Oruesagasti</b>	Egunez <b>Barrenetxea</b>	Egunez <b>*Ibañez</b>	Egunez <b>Garitaonandia</b>	Egunez <b>Etxeberria</b>
Iluntzean <b>Garitaonandia</b>	Iluntzean <b>Yudego</b>	Iluntzean <b>Yudego</b>	Iluntzean <b>Etxeberria</b>	Iluntzean <b>Barrenetxea</b>	Iluntzean <b>Yudego</b>	Iluntzean <b>Garitaonandia</b>	Iluntzean <b>Etxeberria</b>

**\* Fernandez:**  
Herriko enparantza 4,  
Garagartza (Mendaro)  
943 756 142

**\* Ibañez:**  
Rekalde, 1 (Soraluze)  
943 751 638

**\* Oruesagasti:**  
Kalebarren, 9 (Soraluze)  
943 751 384


**Urte guztian, gabez: 22:00-09:00**  
La Fuente - Sostoa kalea, 10 (Eibar)  
943 254 410



### *Jose Mari Armendia Izagirre*


2018ko ekainaren 21ean hil zen, 89 urte zituela.  
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,  
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.






### *Maria Lariz Muguruza*

2018ko ekainaren 26an hil zen, 96 urte zituela.  
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,  
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.






II. URTEURRENA

### *Pedro Aguinaco Isusi*

2016ko uztailaren 1ean hil zen, 79 urte zituela.

***Zure oroimena beti izango da gure bihotzetan.***





Iñigo Lamelas



## Jose Luis Azpillaga



- ¿Olvida usted algo?
- ¡Ojalá!

Horrela dio Luis Felipe Lomelí idazlearen *El emigrante* mikroipuinak. Eguneroko albiste ditugu migratzaileak azkenaldian: *Aquarius* eta *Lifeline* ontzietako etorkinak, Donostia eta Bilbora autobusez heldutako etorkin adingabeak, AEB eta Mexiko arteko muga zeharkatzen duten familiak... Etenik gabekoa dirudi migratzaile-oldeak. Horri aurre egin nahian, era guztietako harresi eta mugak ezarri dituzte AEBetan, Ceutan, Saharan eta hemen bertan, Zierbanako portuan. Baina balio al

dute ezertarako? Nola jarri mugak desesperazioak, goseak, gerrak eta jazarpenak jotako migratzaileei?

“Nekez uzten du bere sorterria  
sustraiak han dituenak.  
Nekez uzten du bere lurra zuhaitzak  
ez bada abaildu eta oholetan”

Joseba Sarrionaindia

*Berría* egunkariak kontakizun hunkigarri hau zekarren lehengoan: *Aquarius* ontzia Valentziara iritsi zenean, Alicia Gilbert izan zen harrera taldeko partaideetako bat. Gurutze Gorriaren Larrialdietarako Berehalako Erantzun Taldean boluntario aritzen zen psikologoa. Moilan egin zuen lan,

osasuneko langileen eta segurtasun indarren kontrolak igaro ondoren nora eramango zituzten jakiteko zain zeudenekin, “dolu prozesu bat” hasten duten pertsonei laguntza emozionala emateko. ‘Normala da hori jasatea edozein motatako galera bat eduki ondoren; esate baterako, norbere herrialdetik eta familiatik urruntzea bizitza duin bat izateko’. Gilbertek kontatu du unerik zirragarriena izan zela etorkin bat “gelditu ezinik negarrez” hasi zenean lurra zapaldu ondoren, “atzean utzi zuen dena kolpean etorri zitzaiolako gogora”.

- Ezer ahaztu al duzu?
- Ojala!

**“Nola jarri mugak desesperazioak, goseak, gerrak eta jazarpenak jotako migratzaileei?”**

EUSKARALDIA: 11 egun euskaraz  
Azaroaren 23tik abenduaren 3ra

# TXIKI EGUNERAKO KAMISETAK!

16 urtetik gorakoentzat

Hiru modelo, aukeran



Kamisetak eskatzeko:

943 741 626

[elgoibar@euskaraldia.eus](mailto:elgoibar@euskaraldia.eus)

on-line: [www.elgoibarkoizarra.eus](http://www.elgoibarkoizarra.eus)

(eskaria egiteko azken eguna: uztailak 17)

PREZIOA  
10€



Elgoibarko EUSKARALDIA Taldea



Funeraria Ehorztetxea

Mugica

Deba Garaiko eta Deba Beheko  
beilatoki-errautestia



- Hileta-zerbitzu integrala • Gorpu-eramateak • Gestoria •
- Loradenda propioa • Instalazio erosoak • Agur personalizatuak •

Xixilion, z/g Pol. Sigma. Hilerriaren ondoan • Elgoibar

24 orduko arreta ☎ 943 74 73 86 • [www.funeuskadi.com](http://www.funeuskadi.com)

GRUPO  
**funeuskadi**  
Euskadiko Lehenengo Hileta-Zerbitzu taldea



# LASA

jatetxea



"Mas Gastronomía" sariaren irabazlea 2009an,  
BANKETEETAKO GIPIZKOAKO JATETXE ONENA sailean.  
Era guztietako banketeak ospatzeko toki bikaina

**Ozaeta Jauregia- BERGARA**  
**TEL. 943 761 055 - Fax.: 943 762 029**  
**[www.restaurantelasa.es](http://www.restaurantelasa.es)**